

conservatorio
UDAL
MUSIKA eskola
Leioa



Leioako udal MUSIKA ESKOLA



Leioako Udal Musika Eskolak aukera paregabea eskaintzen die haurrei musika maila “amateurrean” ikasteko, metodo pedagogiko eta atseginekin.

Esperientzia aberasgarri hori hasteko unerik egokiena Lehen Hezkuntzako 2. urtea da, eta, une hori jadanik pasatuta baldin badago, ahalik eta arinen...

Hastapen ikastaroan, haurrak era aktiboan jartzen dira harremanetan musikarekin, euren sormena eta entzumena garatu eta pizten dituzten abestien, jolasen eta musika-jardueren bitartez. Aldi berean, Eskolan ditugun musika-tresna guztiak ezagutuko dituzte pixkanaka. 18 musika-tresna desberdin eskaintzen ditugu.

Ikasleei eskaintzen diegun tratu pertsonalizatua da gure ezaugarri nagusia. Musika hizkuntza talde txikitan ikasten dute, instrumentua, berriz, banaka ikasten dute. Euskaraz eskaintzen ditugu musika-hizkuntzako eta musika-tresnako eskolak.

Gainerako ikastetxe gehienetan baino ordu gehiago dedikatzen ditugu irakaskuntzara: ordu banako bi klase astero Musika Hizkuntzarako eta 45na minutuko beste banakako klase instrumenturako.

Musikaren ikaskuntza zabaldu egiten dugu, taldekako jarduerak eginez: haurrentzako abesbatza, haurrentzako instrumentu-taldeak, gazteentzako abesbatza, orkestrak... Helduentzako eskolak ere ematen ditugu.

Idazkaritzako ordutegiak honakoak dira:
- **astelehenetik ostiralera,**
10:00 - 13:00 h eta 15:30 - 18:30 h

Telefonoa: 94 463 86 83



Erreferentziako ikastegia gara musikaren irakaskuntzan, hala "amateur" mailakoan (Musika Eskola) nola arautuan (Ikasketa Profesionalak Kontserbatorioa).

Eta prezioagatik... ez zaituz arduratu! Irakaskuntzaren %30a soilik ordaindu beharko duzue. Gainerakoa diru-laguntzen bidez ordaintzen da, batez ere Leioako Udalarri esker.


Gogoan izan hurrengo "Hasierako ikastarorako" (2018-2019) izena emateko epea maiatzaren 8an (asteartea) hasiko dela. Plaza kopurua mugatua da.



Zatoz gu ezagutzera!
Ate irekien jardunaldia
maiatzaren 3an (osteguna)
izango da, 17:30ean, eta 30
minutuko iraupena izango du
gutxi gorabehera.

Izen-emateak (**ate irekien jardunaldia**):
- 94 463 86 83 telefono-zenbakian
- konservatorioa@leioa.net helbidean.
Esan etorriko zaren, mesedez.

Aurkezpen-bideoa ikus dezakezu:
www.conservatorioleioa.com





ZURE SEME EDO ALABAREN HEZKUNTZAK ARDURATZEN ZAITU?

Horrela bada, emaiozu musika ikasteko aukera

• **Musikak sormena eta irudimena pizten dituelako.** Erritmo ikaragarrian aldatzen ari den gizartean, ez dakigu zeintzuk izango diren etorkizuneko lanbideak, baina jakin badakigu sormena eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna arrakasta profesionalaren gakoak izango direla.

• **Musikak sentsibiltate estetikoa garatzen duelako eta oreka emozionalari on egiten diolako.** Bizitzaren egoera desberdinetan zein zirrarek eragiten diguten eta horiek erabiltzen jakiteak, egoera horiei hobeto aurre egiteaz gain, beren oreka emozionalari lagunduko dio, eta ondorioz, beren zorientasunari.

• **Musikak ematen dielako haur eta gazteei beste hizkuntza batzuetan adierazteko aukera.** Zaila da geldirik geratzea musika "martxosoa" entzutean. Pieza bat interpretatzean, ez ditugu soilik konpositorearen sentimenduak bereizten, musika-lan hori erabili ahal dugu, baita ere, gure zirrara eta sentimenduei atsegina emateko.

Haurrek, eta bereziki nerabeek, beren sentimendu eta zirrarak adierazteko hizkuntza propio baten irrikaz, musikan aurki ditzakete gozamenerako iturria eta beren buruarekin eta besteekin konektatzeko baliabidea.

- **Musikak memoria, arreta eta kontzentrazio gaitasunak hobetzen dituelako.** Taldearen melodia entzutea, eta aldi berean, zurea jotzea, hizkuntza abstraktua erabiliz (musika zeinuen), zehaztasun eta doitasun handiz neurtu behar dena.

- **Musikak matematikarako eta arrazoiketa konplexuetarako gaitasuna hobetzen duelako.** Albert Einsteinek, zientzia modernoko zientzialaririk handienetarikoa, biolina eta pianoa jotzen zituen 6 urte zuenetik, eta obra batzuk konposatu zituen. Bach eta Mozarten zale amorratua zen, eta "The Saturday Evening Post" aldizkarian argitaratutako elkarrizketa baten zera esaten zuen: "fisikaria izango ez banintz, seguru asko, musikaria izango nintzateke. Sarritan, musikaz pentsatzen dut. Musikan bizi ditut nire ametsak. Nire bizitza musika-terminoetan ikusten dut".

- **Musikak entzumenaren zolitasuna eta bereizketa garatzen dituelako** umeengan, oinarrizko gaitasunak beste hizkuntza batzuk ikasteko.

- **Musikak aukera ematen dielako umei elkarrekin eta helduekin jarduteko,** taldean lan egiten ikasiz eta ikusiz lan bateratua, nahiz eta txikia izan, beharrezkoa dela taldearen arrakastarako.

**Garrantzitsua
iruditzen zaizu
musika zure seme
edo alabaren osoko
garapenerako?**





MUSIKOTERAPIA HEZKUNTZA BEREZIAN

Leioako Udaleko Musika Eskolak musikaren komunikazio, adierazpen eta bizipen bide berria eskaintzen du, MUSIKOTERAPIAren bitartez.

Proposamen hau hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten 6 urtetik gorako neska-mutilei dago zuzenduta (Garapenaren Gorabehera Orokortua, hiperaktibitatea, autismoa, heltze-atzeratasuna, zailtasun motorrak, Down sindromea...).

Informazio gehiago, Leioako Musika Eskolan.

Idazkaritzaren ordutegiak:

- astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 h eta 15:30- 18:30 h

Matrikula egiteko epea:

maiatzaren 8an hasten da

Plaza mugatuak.

Telf: 94 463 86 83



Leioako
udal
MUSIKA
Eskola

conservatorio
udal
musika eskola
Leioa

